

TABAKALERA



**GUY DE COINTET**

Going to the Market  
My Father's Diary

EU



## GOING TO THE MARKET

Jatorrizko testua ingelesez

—Ni maite nauzu edo Suzan?—galdetu zuen emakume gazte eta erakargarriak. Roz izena zuen, eta haren begiak erresuminez eta etsaitasunez beterik zeuden. Bat-batean, galdera hori garrantzitsua zen harentzat. Adul Erresuma Batukoa zen, 38 urte zituen eta ingeniari bikaina zen 1959az geroztik. Adulek eta Rozek duela zenbait denboratik ezagutzen zuten elkar. Ospitalean egin zuten topo. Roz erizaina zen. Adul mediku-azterketa bat egitera joan zen. Berehala gustuko izan zuten elkar. Baina gau hartan, Adul minduegia zegoen Rozen galderari erantzun ahal izateko. Besterik gabe, bira eman eta joan egin zen, hau pentsatuz:—Gure maitasun-istorio polita amaitu da.

Festa amaitu zen. Korridoretatik zihozen gonbidatuak agurtzen ari ziren. 6 egunez, elkarren artekoa deser osoa izan zen. Gau hartan, Jim-en 24. urtebetetzeko jaian, denak okerrera egin zuen. Gizon gehiegi Rozen inguruan eta emakume gehiegi Adulen inguruan. Ez zuen erantzuten... Tira... Orain ziur zekien Adulek Suzanekin zuen maite-kontua ez zela zurrumuru hutsa. Amorruren amorruez, indarkeriaz zutik jarri zen bat-batean. Orduan, hitzik esan gabe, logelatik joan zen eta korridoreak azkar igaro zituen.

Ispiluak alde guztietan! Eskailerak korrika jaitsi zituen. Atarian, Henry lagunarekin topo egin zuen. Henryk «Kaixo» esan zionean ez zuen erantzun, eta merkatura eramaten zuen lorategi eta kale estuen labirintoan murgildu zen. Ez dut ezer ikusten jada. Gauza onen eta txarren oroitzapenak galdu ditut... Bai istorio goibela! Zorabiatuta zegoen, nahasita... Agian Adulekin jasandako estres emozionalagatik? Edo agian, janariagatik? Jaian asko jan zuen. Edo, edaria izango zen akaso? Nolanahi ere, emakumeak dendara joan nahi zuen botika edo halako zer-baiten bila. Beranduegi zen. Goizeko ordu biak. Merkatura itxita zegoen eta gau iluna zen. Ilgorako ilargi finak une batzuetan egiten zuen dir-dir, zeru hodeitsuaren erdian... Horixe zen dena.

Hortaz, Roz eserleku batean etzatera joan zen, parkean, ibaiari begira. Ibaiko ur urdinetatik hitz beroak ateratzen ziren, oso beroak:

«Amets ilun handi bat  
etorri da nire bizitzara:  
amesten dut, esperantzaz,  
amesten dut, dena desio dut!  
Amets ilun handi bat...»

Une labur batez, hobeto sentitu zen. Baina goragalea itzuli egin zen. Dar-dar betean, arrazoiren batengatik oreka galdu zuen eta ibaira erori zen. Zorionez, bi pertsonak, Luxenburgoko azentua zuten bi gizon prestuk, garaiz heldu zioten. Edari bero bat ere eman zioten edateko... Hara!

Roz hotz-hotza zegoen!—Sentitzen dut— esan zuen. Ez dakit zergatik, zorabiatuta nengoen...—Ez kezkatu— esan zion batek. Ibaiak efektu hipnotikoa du pertsona batzuentzat.—Egia da— gehitu zuen besteak. Bertigoa! Bertigoak arima bereganatzen du...

Bien bitartean, Adul bere autoa gidatzen ari zen etxerantz. Etxera iristeko, zuzenean basoaren bihotzean murgiltzen zen errepidea hartu zuen. Arreta handiz gidatu zuen 56 km/h-ra, oihanpea trinkoa zelako, eta anduiez eta igokariz beteta zegoelako. Dena ilun-ilun zegoen. Kilometro gutxi ziren, baina denbora izugarri motel zihoan ingeniariaren buru urdurian! Ezin zion utzi bere buruari behin eta berriz zera esateari: Roz, Roz!

Bidegurutze batera iritsitakoan, pentsatu ere egin gabe, Adulek eskuinera hartu zuen, merkatu eta ibai aldera, ezkeraldera joan beharrean, etxera. Errepidea bakartia, zuzena eta laua zen, eta urrunean, beti bezain eder eta bare, eguzkia ateratzen ari zen bete-betean. Onartu beharra zeukan ikuspegia guztiz liluragarria zela. Adulek merkatuaren teilatuaren eta parkeko zuhaitzen silueta ikusten zuen, globo gorri handi bat zirudien eguzkiaren aurrean. Ibaiaren marmarra entzun zezakeen, eta haren hitz batzuk: «Amets ilun... Aldatu zuen... Esperantza oro... Inflexio-puntua... Bizitza...» Ahots goxo eta erakargarria zen.—Roz!... Roz!—dei egiten zuen. Roz! Emakumeak atzera begiratu zuen eta Adul ikusi zuen. Jaiki eta, bi gizona laguntzeagatik eskerrak eman ondoren, harengana joan zen korrika:—Adul... Adul...

## MY FATHER'S DIARY

Jatorrizko testua ingelesez

Duela gutxi, nire aitak, sendabiderik gabeko gaixotasun bat zuela jakinda, eta bizitzak ihes egingo ziola sentituta, ezohiko objektu bat eman zidan: forma bitxia duen liburu berde hau.

Hau esaten hasi zen: «Nire egunkaria esaten diot...», baina ahulegi zegoen hitz egiten jarraitzeko. Orduan, begiak itxi eta joan egin zen. Zalantzarik gabe, liburu bat zen, testuz, zeinuz, diagramaz, marrazki indartsuz eta abarrez betea... Denak modu berezian jarrita. Ziur asko maiteminduta zeukan pertsona oso berezi baten omenezko testu batekin hasten da liburua: «Nola deskribatuko luke ahots horren lehen intonazioek sorrarazten zioten emozioa? Hunkituta eta liluratuta zegoen. Berehala, irribarre distiratsu batekin, jaiki egin zen eta ezkererantz urrats batzuk eman zituen, non...». Gauaren erdian, liburu preziatu hau eman eta gutxira, nire aita hil egin zen. Nire arima tristuran murgildu zela sentitu nuen eta haren ondoan geratu nintzen negarrez. Oraindik negar-zotinka ari nintzen bat-batean gerra piztu zenean. Norbaitek zera oihukatu zuen: «Itzali argiak! Kendu argiak! Kendu argiak!» Jendea oihuka entzuten nuen, hegazkinak erasotzen... Ihes egin behar nuen. Une horretan, Frederick, nire senargaia, korrika batean sartu zen:—Agur, Lucy!—oihukatu zuen. Agur! Etsaia hurbil dago. Mesedez, ez nazazu ahaztu. Joan beharra daukat eta...—Jakina, ez zaitut ahaztuko— esan nion muxu bero bat ematen nion bitartean.— Agur, agur! Behin eta berriz negar egin nuen. Joan egin zen...

Egunkaria esku batean nuela, bestearekin arropa batzuk hartu nituen eta etxetik atera nintzen. Errautsez, kez eta auskalo zertaz betetako hodei trinko batek estaltzen zuen hiria. Gauean, zalaparta handia entzuten zen, baina hain trinkoa eta iluna zen hodeia, ezen ezin baitzen ezer ikusi. Bat-batean, hurbil zegoen eraikin bat sugarrek hartu zuten. Norabide guztietan ateratzen ziren airean harriak eta hondakinak, egurrak sutan eta burdina, hain beroa ezen airean urtzen baitzen, eta euri kiskalgarri gisa erortzen. Puska batzuk nigandik hurbil erortzen ziren eta

diagrama baten zati bat hondatzen zuten, elkarren kontrako noranzkoan zeuden bi geziren itxura emanez. Suak, zuzi izugarri baten moduan, txoko guztiak argizatzen zituen. Orduan ikusi ahal izan nuen. Kaleak milaka pertsonaz eta milaka autoz beteta zeuden, kamioi eta autobusen ilara amaiezinez... Nik zutik jarraitzen nuen oraindik, zur eta lur, denboraren nozioa galduta, gure sarrerako atea apaintzen zuten bi arrosondoren ondoan, dardara urduri bati eutsi ezin eta hatz lodia arantza batekin ziztatu nuenean. Ai! Min zorrotza zen! Odola atera zen borborka eta berehala orri bat orbandu zuen...

Hara! Hara...! Eta beste bat.... Baina kolore beldurgarri haren atzean ere, zuri-beltzean marraztutako paisaia zoragarria ikus zitekeen: lehen planoan, lur-zerrenda bat, ederra eta landarez eta lorez betea. Hondoan, mendi izugarri eta aparteko bat agertzen zen bat-batean lautadan. Haren bakartasunak bat egiten zuen haren handitasunarekin, eta sakan izugarriek zerua musukatzen zutela zirudien. Oinez joan nitzen, aurrera eta aurrera, ihe-sean zihoan jendearekin.

Oso mantso eta maltzur igarotzen ziren orduak! Zer geldo igarotzen diren bizitza eta heriotza aurrez aurre jartzen direnean. Hiria urrun zegoen eta paisaia ez zen ezaguna niretzat. Baina etsaien tankeak gero eta hurbilago zeuden. Airea oso trinkoa eta astuna zen, ito egingo nintzela pentsatu nuen. Estropezu egin nuen. Bi aldiz erori nintzen. Penagatik, begi berdedun gizon begirunetsu batek botila bat eman zidan:—Probatu pixka bat hemendik— esan zidan. Asko edan nuen eta presaren presaz pixka bat erori zitzaidan. Edari urdina boteretsua zen. Gorputz osoak dar-dar egin zidan, baina lasaitu egin nintzen... Iluntasuna gorabehera, ezinezkoa zen ez hunkitzea agian gutun bat izango zen hartan oraindik irakur zitezkeen zatien: «Flo maitea: 5 mutil biluzik. Kafe katilu bat. Esnearekin. Tijuana. Maitalea ote da hori? Ez, soilik gatzelaniaz hitz egiten du. Gainera, 14 urte besterik ez ditu. Goizean paseo bat eman ondoren, taxi bat hartu zuen eta»... Errepideak sigi-saga egiten zuen patxadaz inoiz ikusi ez nuen haran emankor batetik. Gaua bazihoan pixkanaka-pixkanaka. Muinotxoan magaletan, alde guztietatik ikus zitezkeen landetxe bat zuhaitzen artean erdi ezkutatuta, abeletxe txiki bat edo ganaduren bat ibaiaren ondoan lotan. Jendeari aurreratzen utzi nion pixka batean errepidearen ondoan ikusi nuen eserleku batean atsedean hartzeko. Egunkaria

ireki nuen atzera eta orrialde hau ikusi nuen: Bostoneko langileak bazihoazen. Gogoan dut. Bazihoazen, ados, baina haietako batek koloretako argazki bat hartu zuen lantokiko atea itxi baino lehen, eta zenbaki berrien talde bat agertzen zen bertan: zenbaki konplexuak. Besteak beste, zenbaki irudikariak eta erabat irudikariak, zenbaki erdi errealak eta erdi irudikariak, irrazionalak, negatiboak eta infinituak... Argazkia nahiko ona da, pentsatu zuen Bostoneko langileak... Urratsez urrats, sistema handitu da; hortaz, orain, eragiketa bakoitzarengatik erantzun bat eskura dezakegu zenbakizko sisteman.

Orduan, nire aurrean zerbait bereizi nuen, zutik, atzean zeru hodeitsu eta zurbila zuela, eta itzal mehatxatzaile bat ikusi nuen nigana begira zegoen errifle izugarri batekin. Lurrera bota nintzen. Balak gutxigatik ez zidan eman. Eta beste tiro bat, altxatzera nindoanean justu... Kaltetuta, baina oraindik ikusteko moduan, irudiak zera erakusten du: eskuinaldean, hotel bat AEBko mendebaldeko kostako hondartza eder bati begira. Ezkerraldean, hondarra. Hondarretan, emakume lirain bat, azalaren koloreko traje bat jantzita, zutik jarrita besoak luzatuta dituela jarrera atsegin batekin. Zein da gazte dotore hori? Zer egiten du itsasoaren ondoan? Inork ez du inoiz jakingo, bat-batean haize bolada indartsu batek jo zuelako, azken orriak erauzi zituelako eta jende guztia lurrera erori zelako; zuhaitzak errotik atera eta etxeak astindu zituen... Aldi berean, zerua garbitu zen azkar batean, eta eguzkia ikusi ahal izan zen, goi-goian eta distira betean. Jendea, distirak itsututa, geldi-geldirik geratu zen. Haizea gelditu egin zen, gogor jo bazuen ere, eta lekua isil-isilik geratu zen. Handik gutxira, isiltasuna ahots alai batzuk apurtu zuten, zera oihukatuz alde guztietan:—Yrotciv! Yrotciv! Yrotciv? Nire buruari esan nion: Yrotciv? Non gaude? Berehala ohartu nintzen, izuarekin, jendeak bide luzea egin zuela, eta orain ingelesaren aldaera moderno eta interesgarri bat hitz egiten zen herrialdeko eskualdean geundela... Yrotciv!

Hain zuzen, ehunka etsaik armak askatu zituzten eta uniformeak bota, alboko basoetan ezkutatzeko korrika ihes egiten zuten bitartean. Tankeek atzera egin zuten, eta zeruan, hegazkinak bira eman zuten eta etorritako noranzkoan desagertu ziren berriro... Nire ondoan, nire Frederick maiteak zera xuxurlatu zidan:—Amaitu da gerra, Lucy. Itzul gaitezen etxera.

Amaiera

*Guy de Cointet, The Complete Plays*-en argitaratutako testua.  
Edizioa: Hugues Decointet, François Piron eta Marilou Thiébault.  
Paraguai, 2017.